

PIZTU: SALTSA BERDETAN LEHIAKETA ENERGETIKOA

Txostena





E-QUIZ LEHIAKETA

MAIATZAK 20 DE MAYO • 18:00-20:00
LARANJADI PLAZA(N) LARANJADI
ZESTOA



ZESTOAKO HERRI AZOKA

Maiatzaren 18a, asteazkena Maiatzaren 20a, ostirala

FRAGILEAK TXOKO FEMINISTA

ISLAMOFObiaren inguruko
HITZALDIA HAJAR SAMADIREKIN

Kultur Etxean 19-00etan

JOLASAK

"SALTSA BERDETAN" lehiaketa
haur eta gurasoentzat

18:00etan Laranjadin

Maiatzaren 21a, larunbata

AZOKA

10:00etatik
aurrera

ARTISAUAK
eta
BERTAKO PRODUKTUAK

BIGAHREN
ESKURU
AZOKA

PIINTXOAK
eta
EDARIA

FRAGILEAK ZGA

11:00etan
Eta Zestean zer?
Gazteak eta etxebizitza
MAHAI-INGURUA
inguruko herrietako
esperientziak

12:00etan
ESATARIAK
Ideien Txokoa.
Zuzeneko
jarraipena

IDEIEN TXOKOA

17:00etan
KAFF-TE-RTULIA

Nolako Zestoa nahi dugu?
Herriarron esku dago
etorkizuneko Zestoa

JOLASAK

17:00etan
HAUR JOLASAK
- Txapa tailerra
- Mundu mapa
- ...

KALE ANIMAZIOA

eguerdi
eta gauean
BATUKADA
Kaleetan
zebar

JATEKOAK

20:30ean
LUNTXA
Zestean dauden hainbat
herrialdeetako janariekin
- Argentina - Maroko

KONTZERTUAK

22:30ean
Herriko musika
taldeek elkarlanean
nahastuta BERTSIOAK
loko dituzte

1. SARRERA:

Urola Erdiko Piztu izeneko eragile sozialarekin harremanetan jartzea eta elkarlana aurrera eramatea erabaki dugu. Energia burujabetzaren inguruan lan egiten duen lantaldea da eta kontestu hau ezagutaraztea eta haren garrantziaz kontzientzia dugu helburu; izan ere, gure ingurune sozialean gai hauen inguruan informazio hutsune edota gabezia handia dagoela ikusten baitugu.

Hori ikusita, gamifikazio metodologiaren bitartez, lehiaketa "berde" bat antolatzea bururatu zaigu. Azken finean, jolasten ikasiz formula aplikatuz txikienetatik sentsibilizazio kanpaina hasi behar dela ikusten baitugu. Ondorioz, barnehartzaileagoa den gizarte baten bilaketan gabiltzala, ezinbestekotzat jotzen dugu gure ingurumen naturalak jasaten dituen inpaktuak ezagutaraztea, ulertzea eta minimizatzen ikastea.

Horrela, tailer dinamiko honen bitartez, etxeko txikienak eta haien eskutik gurasoak, beraien ingurune naturalaz ardura daitezela eta zaindu dezatela lortu nahi izan dugu, nolabait gizartearen kontzientziazio maila areagotzea hain zuzen.

Egindako lana ezagutarazteko antolatutako ekitaldia:

→ **Eguna:**

Maiatzaren 20a (18:00-20:30)

→ **Lekua:**

Zestoako Laranjadi Plaza

→ **Partaideak:**

Piztu: ez dira gerturatu baina Zestoako Udalaren laguntza izan dugu, bi teknikari gerturatu direlarik.

GAZE: 4 GAZEKide.

Bertaraturikoak: Zestoako herritarrak, 100 ume inguru eta hauen gurasoak.

2. TESTUINGURUA:

Piztu Urola bailarako energia subiranotasuna aldarrikatzen duen lan taldea da, horretarako energia berriztagarrien sorkuntza sustatu, energia kontsumo ohiturak murriztu eta erabilera jasangarri bat bultzatuz.

Pizturen lurralde esparrua Urola Erdiko eskualdea da, kideak ere bailarako herritarrak direlarik. Energiaren gaian jakin-mina duten gazte talde batek osatzen du egun Piztu, energia berriztagarrietako goi mailako gradu edota industria ingeniarietza ikasketak dituzten kideak bilduz.

Urola Erdiko energia mahaiko kide da eskualdeko beste zenbait eragilerekin batera, hala nola, udalerrietako ingurumen teknikari eta udal zinegotziekin batera, estrategikoak izan daitezkeen energia ekimenak elkarlanean gauzatzeko.

Piztuk bere aldetik, bailarako beste zenbait eragilerekin, ekitaldi desberdinak antolatu izan ditu; hitzaldi, tailer edo dokumental emanaldiak esaterako.

3. SALTSA BERDETAN EKITALDIA

● NONDIK NORAKOAK

Gure ekitaldiaren azken ideia lortu ahal izateko hainbat aldaketa egin ditugu. Hasieran izandako ideia honako hau izan zen; energia azoka bat sortzea Piztu eta taldea bera sartuta dagoen energia mahaiarekin batera egitea. Era berean, ekitaldi handi hori egin baino lehen beste hiru ekitaldi txiki zeuden pentsatuta. Baina hainbat arazo direla eta, atzera bota behar izan genuen gure ideia hau eta energia mahaiarekin ez genuela lan egingo erabaki genuen. Aldiz, Pizturekin elkarlanean jarraitu nahi genuen eta haiekin batera gynkana bat sortu nahi genuen jendea kontzientziatu ahal izateko eta batez ere bi gai lantzeko: energia subirotasuna eta energiaren kostua. Azkenik, Pizturekin elkartu ginen eta ideia azkeneko aldiz aldatu genuen, E-quiz lehiaketa bat antolatuko genuela erabakiz, aurrera dagoen ekitaldiaren egitura atalean azalduko dagoena.

● EKIMENAREN DIFUSIOA

Ekimenaren berri emateko eta ahalik eta jende gehien biltzeko hainbat bide erabili genituen:

- Gure sare sozialak erabili genituen. Facebook, Twitter eta Instagram-en lehiaketaren berri eman genuen hainbat alditan.
- Herriko komunikabide den Danbolinek difusioan lagundu zigun
- Zestoako herriko webgunearen bitartez ere zabaldu genuen berria
- Gazteriako eta Zestoako udaleko sare sozialen bitartez ere zabaldu genuen.
- Zestoako eskoletan oharra pasatu genuen umeek gonbidapen zuzena eduki zezateen.
- Whatsapp eta bestelako ahoz-ahozko difusioa ere erabili genuen lagun gertukoenak gonbidatzeko asmoz.

● BEHAR TEKNIKOAK ETA MATERIALA

- Dadoa
- Galderak
- Kamara+tripodea
- Sariak : poltsak eta boligrafoak
- Triptikoak
- Ordenagailua musikarekin
- GAZEko Kamiseta
- Birziklatzeko materiala
- Galderak
- Roll up
- Bol haundi bat karameloak edukitzeko
- Pizarra
- Roluladoreak

● EKITALDIAREN EGITURA

Lehen esan dugun bezala gure ekitaldiaren ideia hainbatetan aldatu dugu, gure ekitaldia ostiral batean Zestoan egingo genuela erabakiz Herri Azokaren parte izan gintezkela aprobetxatuz.

Gure ekitaldia E-quiz lehiaketa batean oinarritzen da, non hiru gai jorratzea erabaki zen: energia berriztagarriak, birziklapena eta mugikortasuna. Lehiaketa honen formatua honako hau izan zen:

Haur txikientzat galderak sortu ordez, birziklatzeko hainbat material eraman genituen eta hiru koloretako kutxak jarri genituen (horia, urdina eta berdea). Honela haurrek, guk emandako objektua kutxa egokira bota behar zuten.

Bestelako haurrentzat, lehen aipatu bezala hiru gai jorratzeko asmotan galdera sorta bat asmatu genuen. Gure helburua gamifikazio honen bidez haurrei modu dibertigarriago batean erakustea izan zen. Jolasaren funtzionamendu erraz bat sortu genuen, haurrek dado bat bota behar zuten eta ateratako kolorearen arabera gai bati edo beste gai bati buruzko galderei erantzun beharko zituzten.

Era berean, sariak asmatutako galdera kopuruen arabera banatu ziren.

● EGITARUA

15:30etan → Azken materiala bildu eta prestatu

16:30etan → taldea gaztelekuan topatuko da. Materiala jaso, partaideekin bildu eta tokia ezagutu

17:00etan → Plazara gerturatu eta muntaketa lanetan hasi

17:15etan → Espazioa prestatzen hasiko gara (arkupeetan jarri beharrekoak: mahaiak, bozgorailuak...)

→ Materiala prestatu (sariak, dadoa, ordenagailua...)

17:45 → Dena prest dagoela ziurtatu

18:00-18:10 → Jolasari hasiera eman

19:50 → Jolasari itxiera ematen hasi

20:00 → Jolasarekin amaitu eta jasotzen hasi

● PROZESU OSOA

I. Eragileen aukeraketa:

Gazekideak lanean hasi bezain pronto egin beharreko aukeraketa izan zen hau. Norbanako bakoitzaren interesak ezagutzera eman eta zein eragile sozialekin arituko ginen lanean aukeratu behar izan genuen. Horrela lantaldeak sortu genituen eta lanari ekin genion. Prozesuak honako bilakaera izan zuen:

1. Gazekide guztion preferentziak izendatu genituen, eragile eta tematika zerrenda luze bat osatu genuelarik.
2. Bozketa batekin elkarlanerako eragilerik interesgarrienak aukeratu genituen eta haiekin lehen kontaktua ezarri zen, Gaze.Kaleidoskopioren aurtengo proiektuari buruzko informazioa eman ez eta kolaboratzea gustatuko litzaiekeen galdetuz.
3. Elkarlanean arituko ginen eragileen lista definitiboa gauzatu zen, eragile hautatuei komunikatuz eta ez hautatuei erabakiaren berri eman ez.

II. Kontaktatzea:

Behin eragileen zerrenda izanik, Gazekide bakoitzaren interesen eta motibazioen arabera banatu gintuzten, beti ere talde multidisziplinarrak eta hezkuntza zentru ezberdinetakoak batzen saiatuz eta horrek dakarren aberastasuna kontuan edukiz. Horrela, 4 pertsona inguruko taldeetan lanari ekin genion, bakoitza zegokion eragile sozialarekin kontaktatu eta bilerak egiten hasi zelarik, proiektuei forma ematen hasteko. Gure kasuan, Pizturekin jorratu genuen prozesu hau eta bi aldeetatik lan egiteko motibazioa eta ilusioa azaldu zen.

III. Informazio bilaketa:

Kontaktatu bezain pronto, gure lehenengo lana jasangarritasuna eta energia sortzapenaren arloan kokatzea eta testuinguratzea zen. Horretarako, Ingurumen Saileko webgunea, mugikortasunaren inguruko web orrialdeak, energia burujabetzaren inguruan lan egiten duten elkarten web orrialdeak, artikuluak, hitzaldiak, bideoak, etab. arakatu genituen eta informazioa biltzen jardun genuen hasiera batean. Izan ere, "mugimendu berdean" murgildu ginen, ideiak eta dokumentazioa bilduz pausoz pauso eta proiektuari gorputza eman ez.

IV. Eragilearekin, teknikariekin egindako bilerak :

Prozesu osoan zehar eragile ezberdinekin hainbat bilera izan ditugu. Honen arrazoi nagusia, gure eragilearen txikitasunaren eta bere elkarlanerako joeran dator.

Piztuko ordezkariarekin izan ziren hasierako bilerak, ondoren azpeitiko Elkarrekin eta azoka herritikeko ordezkariarekin egin genuen bertan ekimenak aurrera eramateko aukerak identifikatzeko. Horrek arrakasta ez zuenez eduki, iraurgi berritzeneko teknikariarekin bildu ginen, Urolako energia mahaiko eragileei gure ideia aurkezteko. Bilera hauek guztiak egin ondoren, ohartu ginen prozesua luzerako zihoala eta gure ideia gauzatzeko denborarik ez genuela beraz, planteamendua birmoldatu eta Zestoako Herri azokako kideekin bildu ginen, bertan proposatutako ideia gustatu eta udaleko bi teknikariekin bildu ginen (Ingurumenekoa eta gazteriakoa) ekimeneko azken puntuak zehazteko.

Egin dugun bilera guztien helburu nagusia, GAZEREN filosofia zabaltzea eta elkarlanerako aukerak sortzea izan da. Horrez gain lan kooperatiboa lantzea lortu dugu, ideiak, kezkak, proposamen, iritzi ezberdinak errespetatuz eta elkabanutuz.

V. Retroplayinga:

Nahiz eta azkenean beste proiektu bat aurrera eraman, hasiera batean buruan genuen proiektua aurrera eramateko, hau finkatzen gindoazen bitartean, honek zentzua ez galtzeko eta aberastasuna bilatze aldera, retroplanning bat burutu genuen. Bertan, gure helburu nagusiak eta espezifikoak nabarmendu eta egin beharrekoak nork eta noizko egin behar zituen finkatu genuen.

RETROPLANNING PIZTU												
HELBURU NAGUSIA:		Energiaren erabilpen jasangarria eta subirotasuna sustatzen duen proiektua garatu, Piztu eragile sozialarekin batera (kolaborazioa beste norbaitekin??). Ekitaldi finala: difusio dinamikoa, ENERGIA LORTZEAREN KOSTUA?? ENERGIAREN ZIRKULITUA PLANTEATU....										
AZPIHELBURUA_1:	ERAGILE SOZIALAREKIN HARREMAN ZUZENAREN KIDEAKETA			AZPIHELBURUA_2:	PROIEKTUAREN DIFUSIOA				AZPIHELBURUA_3:	PROIEKTUA		
EGINBEHARRA	AROURADUNA	EPENUGA	EMAITZA	EGINBEHARRA	AROURADUNA	EPENUGA	EMAITZA	EGINBEHARRA	AROURADUNA	EPENUGA	EMAITZA	
Ideazioko informazioa eman	Amaia	Apiril 8		-Kontaktuan ipini-beharrak identifikatu-DSS2016ko aldizkarian ekitaldia agertzeko, ekitaldiaren aurkezpen txiki bat egin	Jon	Apirila 20-21	DSS2016 aldizkarian agertzea	Eskaera orria bete	Jon	Apirilak 6		
Dokumentazio/ material ofizial	Amaia	Mai 4		Sare sozialetan difusioa	Katin	Mai 9-22	Difusioa lortzea	Aurrekontua egin	Amaia	apirilak 21		
azken txanpa elkarbanatu	Amaia	mai 13, 17, 20		Blog sarrera idatzi	Saioa	Mai 15	Difusioa lortzea	Ekitaldiaren eguneko gidioa	Amaia	apirilak 25		
				Gure lagunekin partekatu eta difusio handitu	Danok	Prozesu oso	Difusioa lortzea	Ginkana antolatu	Guztiok	Lehenbatitel		
								Materiala lortu	Jon			
								Rolak definitu eta banatu	Danok	apirila 20-28		

VI. Proiektuarentzako materialaren prestaketa:

Zestoako ekitaldia guztiz finkatzea lortu genuenean, materiala prestatzen hasi ginen. horretarako lehendabizi dato erraldoi bat sortu genuen, alde bakoitzean gai bat agertzen zelarik. dato honekin batera datoan agertzen ziren gai ezberdinen inguruan galderak prestatu genituen, horrela "Saltsa Berdetan" lehiaketa prestatuta utziz. honetaz gain, gaztetxoentzako kaja hori bat, urdin bat eta berde bat sortu genituen eta zabor mota ezberdinak inguratu genituen, horrela zabor mota bakoitza dagokion eduki ontzian sartzeko.

VII. Ekitaldirako gidioa:

Behin material guztia eskuan genuela, eta gainontzeko gazekideei proiektua zehatz zehatz zeren inguruan joango zen azaldu ostean, behin ekitaldira zenbat gazekide joango ginen finkatu genuenean, orduan, "Saltsa Berdetan" inguruko gidioi bat egin genuen, ekitaldira joan behar ginen gazekide guztiak irakurri eta kontuan hartu genuena.

VIII. Emaita finala:

Esan daiteke ekitaldia oso ondo atera zela, izan ere guk nahi genuen adin inguruko jendea etorri zen gure lehiaketa. Gurasoak ere oso gustora egon ziren lehiaketa irauten zuen bitartean eta konfiantza osoa eman ziguten. Honetaz gain, lehiaketa pentsatu genuen bezala atera zen eta ez zen inolako arazorik egon arratsalde osoan zehar.

4. ONDORIO OROKORRAK

Pizturekin aurrera ateratako proiektu honen bidez, jasangarritasunaren inguruan kontzientzia sortzea eta ondo pasatzea geneukan helburu " Saltsa Berdetan" lehiaketaren bidez.

Ostiral arratsaldean Zestoako ume gehienak, guztiak ez esateagatik, pasa ziren guk antolatu genuen txokotik. esan bezala oso ondo pasa zuten umeak, eta birziklapena, mugikortasuna eta energia berriztagarrien inguruan zerbait gehiago ikasita joan ziren etxera.

Ekitaldia amaitu ostean, hau da GAZEKideok egin genuen balorazioa:

● ONDO ATERA ZENA

- Zestoako udalaren laguntza (Materiala utzi, bozgorailua, karameloak, panfletoak,...).
- Difusioan lagundu digute: eskolan zabaltzen beraien programan sartzen.
- Danbolinek difusioa egin digu (argazkiak ateraz, webgunean zintzilikatuz).
- Herri Azoka eragileak bere laguntza eskaini eta gure aktibitateari testuingurua eman dio.
- Herritarren partehartze aktiboa izan zen.
- Umeak berriz egiteko gogoarekin geratu ziren.
- Lehiaketaren helburua lortu genuen (kontzientziazioa).
- 4 izan da eta laguntzarik gabe, ondo antolatu ginen eta ekitaldia arrakastaz aurrera eraman genuen.
- Aukeratutako kokapena ezin hobea zen.
- Ekitaldiaren formatua bikaina izan da: jolasten ikasiz.(gamifikazioa)
- Oparien aukeraketa ona.
- Ekitaldiko materialen prestaketa egunean eraman genuen eta oso egokia izan zen.
- Denborak ondo eraman ditugu.(Ekitaldiko pre-during)
- Ondo girotua egon zen ekimena (musika aukeraketa ona izan zen)
- Ondo egokitu genuen formatua zeuden umeen adin ezberdinentzako.

→ Orokorrean kanpotik oztopo ugari eduki arren, gure proiektua aurrera eramateko gai izan gara 4 artean. Autonomiarekin eta egoerataro moldatzeko gaitasun handiarekin.

● GAIZKI ATERA ZENA

→ Ekitaldiaren zehar momentu batzuetan ume kantitate handiegia zegoen ondo kudeatu ahal izateko.

→ Herri txikia zenez, ez zen erraza izan inguruko jendea erakartzea.

→ Gazeko Sare Sozialetan izandako inpaktua ez da ona izan (Atsegin dut: oso gutxi).

→ Pizturekin izan dugun harremana eta elkarlana eza izan da. Hasieran laguntza izan genuen arren, denborak aurrera joan ahala desagertu egin zen.

→ Proiektuaren planteamendua askotan aldatzea, eragilearen indar txikiarengatik, inguruko laguntza ezarekin... Horregatik, donostian planteatuta zegoen ekitaldiaren porrota ekiditeko. Tokia aldatu eta kolaborazio berriak lortu genituen.

→ Gazekideen falta somatu genuen. (laguntza extra behar genuen eta)

→ Proiektu definizioaren prozesua luzeegia izatea.

● ALDATU BEHARKO LITZATEKEENA

→ Elkarlanaren arauak ondo definitzea eta aurrera eramatea.

→ Lan karga ondo banatzea.

→ Eragilea ondo aukeratzea.

→ Testuingurua ez edukitzea (gure ekimenak eta filosofia barneratzeko).

→ Proiektua lehenago definitua izatea.

● IKASITAKOIA

→ Ekitaldiak Umeentzat ere badirela eta horietatik asko ikasi daitekeela.

→ Energia, birziklapena eta mugikortasunaren errealitateaz ohartu, ulertu eta ikasi genuen.

→ Gamifikazioaren indarra, dinamika dibertigarriak, aktiboak eta ikasketaz beteak izateko.

→ Ingurugiroarekiko errespetua eta kontzientziazioa: Bigarren mailako gaia izan ez arren, horrela hautematen dugu. Ikuspuntu hori aldatzen saiatu gara, txikienetatik hasita haiek baitira etorkizuna eraldatuko

dutenak. Gainera, etxeko txikienei esker, helduengana iristeko bidea aurkitu dugu.

- Autokudeaketa, autogestioa eta bestelako gaitasunak ikasi ditugu.
- Nahiz eta kanpotik laguntza handirik ez izan, horrek indartsuago egin gaitu taldean eta autonomoki lan egiten ikasi dugu. Beraz, ikasketa prozesu hau oso onuratsua izan da guretzat.
- Komunikazio eraginkorra lortu dugu umeekin.
- Taldean lan egiten ikasi dugu.
- Administrazio publikoarekin, teknikariek... komunikazio idatzia izaten ikasi dugu.

5. MARKO TEORIKOA

Landu dugun marko teoriokoa gamifikazioan zentratzen da, jolastuz ikasi dinamikan. Gure inklusibitatea umeekin landu dugu, beraiek baitira etorkizuna eta kontuan harturik gure eragilearen misioa. Landu nahi genuen erronka ingurumenaren, bizirklapenaren, energia subirotasunaren eta mugikortasunaren inguruko kontzientziak lantzea zen.

Hau guztia kontuan harturik, gamifikazioa erabili dugu etxeko txikienetan ahalik eta eragin handiena lortzeko. Lortu ditugun emaitzak oso positiboak izan dira eta dinamika hau beste toki eta esparruetan errepikatzeko aukerak ikusten ditugu. Eskoletan klase orduko aktibitatea izan daiteke gai ezberdinen inguruan ikasteko, Ludotekek ere erabili dezakete aste tematiko baten parte moduan.. Horregatik, zestoako gazteria teknikariarekin sortu dugun harremanaren ondoren, beraiei utzi behar diegu material guztia. Honelako aktibitateak jorratzen jarrai dezaten.



6. ESKERRAK

FITXA TEKNIKOA

GAZE

Manuel Lardizabal Kalea, 2
20018, Donostia-San Sebastián (GIPUZKOA)
Tel.: 943 018395
Email: gaztekinzale@gmail.com
<http://gaztekintzaile.wordpress.com/>

Esker onak:

Bereziki Zestoako Udalarari eta Herri Azoka Ekimenari, gure proiektua aurrera eramateko eskainitako laguntza guztiagatik, batik bat, Leire Otaegiri (Gazteriako Teknikaria) eta Izaskun Larrañagari (Ingurumen Teknikaria) erakutsitako interes eta kolaborazioagatik. Honez gain, eskerrak eman nahi dizkiogu gure eragile den Piztuko Enok Suduperi, proiektura egindako aportazioengatik.

Azkenik, mila esker Saltsa Berdetan Lehiaketara gerturatutako Zestoako herritar guztiei.

7. ERANSKINAK

● LEHIAKETAREN FORMATURAKO IDEIA



● LEHIAKETAREN GALDEREN PRESTAKUNTZA

A. Birziklapena

1. Zenbat zabor ontzi mota daude?
 - a. 1

- b. 2
 - c. 6
 - d. 5 x
2. Zein koloretakoak dira zabor ontziak?
- a. Urdina eta naranja
 - b. Urdina, gorria eta horia
 - c. Horia, berdea, morea eta beltza
 - d. Horia, urdina, berdea, marroia eta grisa x
3. Material hautetatik zeintzuk ezin dira birziklatu?
- a. Papera
 - b. Pintura x
 - c. Olio
 - d. Kartoia
4. Objektu hauetatik zein ezingo genuke edukiontzi horira bota?
- a. Plastikozko botila
 - b. Esne brick-a
 - c. Platanoaren azala x
5. Hauetako zeintzuk bota daitezke konpostaren edukiontzira?
- a. Egunkari zaharrak
 - b. Fruta hondakinak x
 - c. Latak
6. Zenbat denbora behar du txikle batek deskonposatzeko?
- a. 5 egun
 - b. 5 urte x
 - c. 5 hilabete
 - d. 500 urte
7. Zenbat denbora behar du plastikozko poltsa batek desegiten?
- a. egun 1
 - b. 150 urte x
 - c. 1 hilabete
 - d. 2 urte
8. Zenbat denbora behar du kristalezko botila batek desegiteko?
- a. 1 urte
 - b. 10 urte
 - c. 500 urte
 - d. 4000 urte x
9. Zenbat denbora behar du coca-cola lata batek desegiteko?
- a. 3 egun
 - b. Urte 1
 - c. 10 urte x
 - d. 100 urte
10. Zenbat denbora behar du esne tetra-brik batek desegiteko?
- a. 30 egun
 - b. 2 urte
 - c. 30 urte x
 - d. 100 urte
11. zenbat denbora behar du pizgailu batek desegiteko?
- a. 100 urte x
 - b. 5 urte
 - c. 20 urte
 - d. 200 urte
12. Zein herritan dago kokatuta Lapatx zabortegia?
- a. Zumaia
 - b. Azpeitia x
 - c. Zarautz
 - d. Hernani
13. Zein herritan zegoen San Markoseko zabortegia?
- a. Orereta x

- b. Donostia
 - c. Eibar
 - d. Elgoibar
14. Zein koloretakoa da beiraren edukiontzia?
- a. Berdea x
 - b. Urdina
 - c. Horia
 - d. Marroia
15. Zein koloretakoa da materia organikoaren edukiontzia?
- a. Urdina
 - b. Marroia x
 - c. Grisa
 - d. Berdea
16. Zein koloretakoa da plastikozko edukiontzia?
- a. Berdea
 - b. Urdina
 - c. Horia x
 - d. Marroia
17. Zein koloretakoa da errefusaren edukiontzia?
- a. Grisa x
 - b. Marroia
 - c. Berdea
 - d. Urdina
18. Zein koloretakoa da paperaren edukiontzia?
- a. Grisa
 - b. Berdea
 - c. Urdina x
 - d. Marroia
19. Zein kaletan dago kokatuta Zestoako birziklapen etxola?
- a. Zubimusu kalea x
 - b. Ertxinondo kalea
 - c. Poligonoan
 - d. Toribio Altzaga kalea
20. Zein eduki ontzietara bota behar dira goxokiak?
- a. Urdina
 - b. Berdea
 - c. Marroia x
 - d. Horia
21. Zertarako erabili oi da konposta?
- a. Ongarri moduan x
 - b. Ez du ezertarako balio
 - c. Animalien jatekoa da
22. Zer egingo zenuke ur botila batekin?
- a. Birziklatu
 - b. Berrerabili x
 - c. Lurrera bota
23. Nola lortuko da konposta azkarrago?
- a. Hondakin zati handiekin
 - b. Hondakin zati txikiekin x
 - c. Berdin dio
24. Erosketak egitean zer egiten duzu plastikozko poltsekin?
- a. Zakar ontzira bota
 - b. Ahal den gehienetan berrerabiltzen dituzu x
 - c. Erre
25. Zer da egin behar dena? Orden egokian adierazi.
- a. Gutxitu-berrerabili-birziklatu x
 - b. Berrerabili-gutxitu-birziklatu
 - c. Birziklatu-gutxitu-berrerabili

- d. Gutxitu-birziklatu-berrerabili
26. Zenbat kilo zabor sortzen ditu pertsona batek bataz beste egunero?
- a. 0,5Kg
 - b. 1Kg x
 - c. 3Kg
 - d. 6Kg
27. Beiraren eduki ontzian kristalak bota daitezke?
- a. Bai
 - b. Ez x
 - c. Puskatuta badaude bakarrik
28. Gaur egun, duela 50 urteko egoerarekin alderatuta zenbat plastiko erabiltzen dugu?
- a. Kantitate berdina erabiltzen dugu
 - b. 20 aldiz gehiago x
 - c. 30 aldiz gehiago
 - d. Orain plastiko gutxiago erabiltzen da
29. Haragi edo arrainaren bilgarria edukiontzira botatzeko banatu egin behar al da?
- a. Bai x
 - b. Ez
30. Arropa birziklatu al daiteke?
- a. Ez
 - b. Bai x
31. Zer egingo zenuke egunkari batekin hondakinak murrizteko?
- a. Erre
 - b. Zakar ontzira bota
 - c. Oparia biltzeko papera bezala erabili x
32. Orain dela 20 urte baino gehiago birziklatzen al da?
- a. Bai x
 - b. Ez
33. Aukera hauetatik zer egin daiteke olioarekin?
- a. Ura
 - b. Xaboia x
 - c. Kristala
34. Pilak botatzeko eduki ontzi berezirik ba al dago?
- a. Ez
 - b. Bai x
35. Pneumatikoak birziklatu ahal daitezke?
- a. Ez
 - b. Bai x
36. Zertarako berrerabiltzen dira pneumatiko birziklatuak?
- a. Jolas parkeetako lurzorua egiteko x
 - b. Janaria egiteko
 - c. Ongarriak lortzeko
37. Zer da berotegi efektua?
- a. Hondartzan egun pasa bat
 - b. Lurra epel mantentzen duen fenomeno naturala x
38. Zein da birziklapenaren ikurra?
- a. Moebius banda gezidun berdea x
 - b. Aurpegi irribarretsua
 - c. Borobil berde bat
39. Zer da birziklatzea?
- a. Zabor materialei bigarren bizitza bat ematea x
 - b. Zaborra sortzea
 - c. Zaborrarekin konposta egitea
40. Botikak birziklagarriak ahal dira?
- a. Bai
 - b. Ez x

41. Nora bota daitezke pilak birziklatzeko?
- a. Pilak saltzen dituzten dendetan, puntu berde mugikorretan, garbiguneetan x
 - b. Edukiontzi horira
 - c. Edukiontzi berdera
 - d. Lurrera

B. Mugikortasuna


1. Nola deitzen da bereziki bizikletarentzako den bidea?
 - a) Bide berdea
 - b) Bide gorria x
 - c) Bizikelta bidea
2. Zestoan zenbat garraio publiko mota daude?
 - a) 2
 - b) 0
 - c) 1 x
3. Zenbat km bidegorri daude gure bailaran guztira?
 - a) 33,2 km
 - b) 10 km
 - c) 124 km x
4. Bizikleta erabiltzeko zer da beharrezkoa?
 - a) Ur botila
 - b) Antijoak
 - c) Kaskoa x
5. Garraiobide hauetatik zein kutsatzen du gutxien?
 - a) Kotxea
 - b) Autobusa
 - c) Bizikleta x
6. Bost pertsonako familia kotxez bidaiatu ezker, zer da jasangarriagoa?
 - a) Banaka, bakoitza bere kotxean joan dadila
 - b) Binaka bidaiatzea
 - c) Kotxe bakarrean guztiak sartzea x
7. Erregai hauetatik zein da kutsagarriagoa?
 - a) Gasolina
 - b) Gasoila edo diesela x
8. Kotxe mota hauetatik zeinek kutxatzen du gutxien?
 - a) 4x4 ibilgailua
 - b) Gasolina kotxea
 - c) Gasoil kotxea
 - d) Kotxe elektrikoa x
9. Lanera joateko garraiorik egokiena?
 - a) Garraio publikoan
 - b) Autoz
 - c) Oinez/bizikletan x
10. Ikastolara oinez ezin bagara joan, hauetatik zein garraiobide erabili beharko genuke?
 - a. Autobusa x
 - b. Motorra
 - c. Kotxea
11. Gehiegizko trafikoak zer ondorio dakartza ingurumenarentzat?

- a. Atmosferako berotegi efektua areagotzen du eta kutsadura akustikoa eragiten du x
 - b. Atmosferako berotegi efektua murrizten du
 - c. Ez du inolako ondorioz suposatzen ingurumenarentzat
12. Zer da kotxe elektrikoa?
- a. Elektrizitate bitartez mugitzen den kotxea x
 - b. Elektrizitatea sortzen duen kotxea
 - c. Erregai bitartez mugitzen den autoa
13. Zeintzuk dira kotxe elektrikoaren abantailak?
- a. Ez dute kutsadura atmosferikorik ez akustikorik sortzen x
 - b. Azkarragoak dira
 - c. Autonomia handiagoa dute
14. Zeintzuk dira kotxe elektrikoaren desabantailak?
- a. Auto arruntak baino gehiago kutsatzen dute
 - b. Mantsoagoak dira eta autonomia txikiagoa x
 - c. Merkeagoak dira
15. Non kargatu ditzakegu kotxe elektrikoak?
- a. Gasolindegitan
 - b. Etxean
 - c. Haien bateria kargatzeko bereziki ezarritako puntuetan x
16. Kotxean bidaiatzen badugu zer segurtasun neurri errespetatu beharko ditugu?
- a. Edozein pertsonak bidaia dezake edozein eserlekutan
 - b. Segurtasun uhalak erabiltzea kasu guztietan x
 - c. Ume txikiak aurrean joan ahalko dira
17. Kotxez bidaiatzean, 1,35 m edo gutxiago neurtzen dutenak:
- a. Aurrean edo atzean eseri daitezke
 - b. Aurrean eseriko dira segurtasun uhala erabiliz
 - c. Atzean eta eserleku egokituan joan beharko dute x
18. Errepide batean oinez bagoaz nondik joango gara?
- a. Ezkerretik x
 - b. Erdetik
 - c. Eskumatik
19. Errepidean oinez edo bizikletaz goazela ilundu egiten bazaigu:
- a. Arropa ilunak jantziko ditugu
 - b. Islagailuak eta linterna eramatea komeni da x
 - c. Ez da aparteko neurririk hartu behar
20. Zer neurri hartu ditzakegu garraioak eragindako kutsadura murrizteko?
- a. Bizikleta, garraio bide publikoak eta elektrikoak erabiltzea x
 - b. Erregai fosilak erabiltzen dituzten garraio bideak erabili
 - c. Ez da neurririk hartu behar, garraioak ez duelako kutsadura sortzen
21. Motorrean bidaiatzeko zer da beharrezkoa?
- a. Eskularruak eta betaurrekoak
 - b. Kaskoa x
 - c. Txalekoa
22. Zer da ozono geruza?
- a. Lurraren atmosferako gas geruza da, ozono (O₃) kontzentrazio handikoa x
 - b. Lurraren lurzoru geruza da, oxigenoz (O₂) osatua dagoena
 - c. Lurmantuko geruza da, tenperatura oso altuetan dagoena
23. Zerk eragiten du ozono geruzaren zuloa?
- a. Berez sortzen den prozesu naturala da
 - b. Ozono geruzan ez da zulorik aurkitu
 - c. Giza jarduerak eragindako kutsadurak (kutsatzaile kloradunak) x
24. Lurreko berotegi efektua areagotzen duten gasen artean honakoak aurki ditzakegu:
- a. Oxigenoa

- b. Gas naturala
 - c. Karbono dioxidoa eta metanoa x
25. Garraiobide garbiak lortzeko eredurik onena zein da?
- a. Auto elektrikoak eta hidrogenoz dabiltzanak x
 - b. Gasoil bidez dabiltzanak
 - c. Biodiesel bidez dabiltzanak
26. Zenbat km egin daitezke batazbeste auto elektrikoekin batera kargatu gabe?
- a. 60-160 km arteko bidea x
 - b. 6-16 km arteko bidea
 - c. 600 kmtik gora
27. Nola deritze gasolinazko motorra eta elektrikoa konbinatzen duten autoei?
- a. Konbinatuak
 - b. Mistoak
 - c. Hibridoak x
28. Gasolina litroak euro inguru balio duen bitartean, elektrizitatean neurtuko bagenu zenbateko kostua izango luke?
- a. 2 euro
 - b. 21 zentimo x
 - c. 3 zentimo
29. Nola kargatzen dira auto elektrikoen bateriak?
- a. Ohiko entxufe bati lotuta kargatzen dira x
 - b. Erregaiez hornitzen dira
 - c. Bateriak hauek ez dira agortzen
30. Zeintzuk dira mugikortasun berdearen abantailak?
- a. Erregai garbia erabiltzen dute, gure hirietako airearen kalitatea hobetuz eta motorra ez da hain zaratsua x
 - b. Mugikortasun mota honek ez ditu abantailik
 - c. Gehiago kutsatzen dute baina merkeagoak dira

C. Energia jasangarritasuna

1. Hortzak garbitu bitartean, txorrota irekita edo itxita utzi behar da?
- a. Irekita ez da ezer gertatzen
 - b. Itxita ura aurrezteko x



2. Gela batetik joatean, argia piztuta ala itzalita utzi behar da?
- a. Argia itzalita x
 - b. Argia piztuta



3. Kalean eguzkia egonda etxe barruan argia piztuko dugu edo kaleko argia aprobetxatuko dugu?
 - a. Beti aprobetxatuko dugu kaleko argia x
 - b. Berdin dio argia piztu ala ez
4. Etxean berogailua edo aire egokitzailea jartzen badugu, leihoak irekita edo itxita utziko ditugu?
 - a. Itxita x
 - b. Zabalik
5. Zer erabiltzen da energia hidraulikoa sortzeko?
 - a. Ura x
 - b. Eguzkia
 - c. Haizea
6. Energia hauetatik zein ez da berriztagarria?
 - a. Hidraulikoa
 - b. Eolikoa
 - c. Petrolioa x
 - d. Eguzki energia
7. Ondorengo energietatik zein ez da berriztagarria?
 - a. Energia hidroelektrikoa
 - b. Eguzki energia
 - c. Energia nuklearra x
 - d. Energia eolikoa
8. Ondorengo herrietatik non dago olatuen bidez energia sortzeko azpiegitura?
 - a. Donostia
 - b. Mundaka
 - c. Getaria
 - d. Mutriku x
9. Goizean maratoni erdian korrika egin duen pertsona batek, hau egiteko behar izan duen energiarekin zenbat denboraz egongo litzateke bonbila bat piztuta?
 - a. 10 minutu
 - b. 5 egun
 - c. 24 ordu x
 - d. 2 ordu
10. Zer esan nahi du kutsadura termikoa hitzak?
 - a. Gure ingurunean gehiegizko beroa
 - b. Atmosferan gehiegizko eguzki energia

- c. Gehiegizko energi termikoa lurrean x
11. Txirrindulari profesional batek kilometro batean sorturiko energiarekin zenbat laranja zuku atera dezake?
- 33cl x
 - 1L
 - 50cl
 - 10cl
12. Zeren eraginez lortzen da energia hidroelektrikoa?
- Haizea
 - Ura x
 - Eguzkia
 - Olatuak
13. Zeren eraginez lortzen da energia eolikoa?
- Eguzkia
 - Haizea x
 - Ura
 - Olatuak
14. Nondik lortzen da biomasa?
- Materia organikoa x
 - Ura
 - Olatuak
 - Beroa
15. Nola lortzen da energia geotermikoa?
- Eguzkia
 - Lurrak berak duen berotik x
 - Haizea
 - Olatuak
16. Nondik lortzen da itsas energia?
- Olatuetatik x
 - Eguzkitik
 - Haizetik
17. Zeintzuk ez dira energia berriztagarriak?
- Eolikoa, hidroelektrikoa, geotermikoa
 - Petroleoa, ikatza, nuklearra x
 - Eguzki energia, energia maremotriza, biomasa
18. Energia geotermikoa kutsakorra al da?
- Bai
 - Ez x
19. Non dago zentral nuklear gertuena?
- Madril
 - Bartzelona
 - Araba x
 - Biarritz
20. Zer luzeera dauka haize errota baten hegala? (eoliko baten erretatue)
- 5m
 - 5-10m
 - 20m baino gehiago x
21. Zestoan energia lortzeko zer ahalko litzateke jarri?
- Zentral nuklearra
 - Eguzki plakak x
 - haize errota
22. Desertuan energia lortzeko zein izango zen hurrengoetatik egokiena?
- Eguzki plakak x
 - Haize errota
 - Zentral hidroelektrikoa
23. Zer tenperatura du lurraren zentruak?
- 10000 gradu inguru
 - 40 gradu inguru

- c. 6000 gradu inguru x
 - d. -250 gradu inguru
24. Haize errotek nola funtzionatzen dute hobekien?
- a. Haize konstantearekin x
 - b. Haize oso gogorarekin
25. Eguzkitik lorturiko energia momentuan bertan erabil al daiteke?
- a. Bai x
 - b. Ez
26. Eguzki plakak lainotuta dagoenean energia sortzen al dute?
- a. Ez
 - b. Bai x
27. Zeinek kontsumitzen du energia gehiago?
- a. Bonbila bat
 - b. Labe bat x
 - c. Telebista bat
28. Zein da energia berriztagarri nagusia Euskal Herrian?
- a. Eguzki energia
 - b. Energia hidroelektrikoa
 - c. Biomasa x
 - d. Energia eolikoa
29. Zein da munduan gehien erabiltzen den energia berriztagarria?
- a. Eolikoa
 - b. Hidroelektrikoa x
 - c. Eguzki Energia
 - d. Biomasa
30. Dutxan gaudelarik eta xaboiarekin burua garbitzen txorrota nola utziko dugu?
- a. Zabalik
 - b. Itxita x
 - c. Berdin dio nola utzi, ura ez baita agortzen.
31. Zerk kontsumitzen du ur gutxiago?
- a. Bainuak
 - b. Dutxak x
32. Hurrengo kontzeptuetatik zeintzuk dira energia iturri?
- a. Egurra, ura eta haizea x
 - b. Garbigailua, ura eta ordenagailua
 - c. Berogailua, egurra eta eguzkia
 - d. Eguzkia, ordenagailua eta berogailua
33. Hurrengo kontzeptuetatik zeintzuk behar dute energia martxan jartzeko?
- a. Garbigailua, egurra eta eguzkia
 - b. Garbigailua, ordenagailua eta berogailua x
 - c. Ura, egurra eta haizea
 - d. Egurra, berogailua eta haizea
34. Energia iturri ez berriztagarriak zer dira?
- a. Erabili ezin daitezkeen energi iturriak dira
 - b. Erabiltzean agortu egiten diren energi iturriak dira x
 - c. Erabiltzean agortu egiten ez diren energi iturriak dira





● LEHIAKETAREN GIDOIA

<p>NON? Azoka Herritik ekimenean, Laranjadi Plaza, Zestoa</p>	<p>NOIZ? Maiatzak 20 (18:00-20:00)</p>
<p>15:30etan → Azken materiala bildu eta prestatu (Jon/Amaia)</p> <p>16:30etan → taldea gaztelekuan topatuko da (Jon/Amaia/Saioa) Materiala jaso, partaideekin bildu eta tokia ezagutu</p> <p>17:00etan → Plazara gerturatu eta montaketa lanetan hasi (Guztiak)</p> <p>17:15etan → Espazioa prestatzen hasiko gara (arkupeetan jarri beharrekoak: mahaiak, bozgorailuak...) → Materiala prestatu (sariak,</p>	<p>ERAMAN BEHARREKO MATERIALA:</p> <ul style="list-style-type: none"> -Dadoa -Galderak -Kamara+tripodea -Sariak : poltsak eta boligrafoak -Triptikoak -Ordenagailua musikarekin -GAZE-ko Kamiseta -Birziklatzeko materiala -Galderak -Roll up -Bol haundi bat karameloak edukitzeko -Pizarra

dadoa, ordenagailua...)	
17:45 → Dena prest dagoela ziurtatu	
18:00-18:10 → Jolasari hasiera eman	
19:50 → Jolasari itxiera ematen hasi	
20:00 → Jolasarekin amaitu eta jasotzen hasi	

Kaixo Danoi! Hemen gaude GAZE-ko ikasleak

BAKOITZAREN EGIN BEHARREKOAK :

Aurkezlea → Jon

Galderak egiten → Saioa

Grabatzen → Amaia eta Katrin

Jendea gerturatzeko animatzen → Amaia eta Katrin

Bertako arduradunakin komunikazioa lana egin → Amaia

Sare Sozialak eramatea → Katrin

TALDEKA ETORTZEAN:

Hiru talde batera jolasean egoteko aukera emango da, eta talde hauek, hiru taldekidez osaturik egongo dira gehienez.

Dado moduko bat izango dugu eta hau botaz aukeratuko da erantzuteko ordena. Erruleta biratuz gai bat tokatuko zaie eta gai honen inguruko galdera erantzungo dute. Asmatuz gero ala gaizki erantzunez gero hurrengo taldearen txanda izango da.

AZKEN HELBURUA: Ahalik eta galdera gehien ondo erantzutea, modu honetan nolabaiteko ikasketa bat egitea proposaturiko gaien inguruan. Gainera, sariak izatea plus bat izango da, hauek motibazioa sortu dezaketelako, zenbat eta galdera gehiago ondo erantzun, orduan eta sari hobea lortuko baita.

Sariak:

-Karameloak **GUZTIOI**

-Pegatinak (parte hartzeagatik)

-Gazeko boligrafoak (2 asmatuz gero) Taldeko guztiei

-Poltsak (3 asmatuz gero) Taldeko guztiei

BANAKA ETORTZEAN:

Taldeka etortzerakoaren formatu oso antzekoa izango du. Erruleta biratuko da eta ateratako gaiaren inguruan erantzungo dituzte galderak. Hiru galdera erantzuteko aukera izango dute, asmatutakoen kopuruaren arabera izango da, hau da, zenbat eta galdera gehiago asmatu orduan eta sari hobea.

*dadoa bota eta bi txanda pasa ateraz gero, berriz biratuko lukete..

Sariak:

Karameloak **GUZTIOI**

- Pegatinak (parte hartzeagatik)
- Gazeko boligrafoak (2 asmatuz gero) Taldeko guztiei
- Poltsak (3 asmatuz gero) Taldeko guztiei

HAURRENTZAT: Beste formatu bat, kuboena, eta galderak normal normal

Haur txikiek baita jolasteko aukera izan dezaten, birziklatzeko kuboak izango ditugu. Hurrei hondakin bat emango zaie eta zein kubotan bota behar duten asmatu beharko dute (adibidez: papera urdinean bota) asmatutakoen arabera sariak emango zaizkie. Haurrentzat ere beste jolas mota prestatuko dugu. Bertan galdera bat egingo zaie eta bi aukeren artetik egokia aukeratu beharko dute.

Sariak:

Karameloak **GUZTIOI**

- Pegatinak (parte hartzeagatik)
- Gazeko boligrafoak (2 asmatuz gero) Taldeko guztiei
- Poltsak (3 asmatuz gero) Taldeko guztiei